

## 1. LABORATEGIAREN LABURPENA ETA EMAITZAK

Zumaia herrian eta bere eskualdean garrantzia handia hartzen ari da turismoa azken urteetan. Turismoaren hazkunde horretan badira hainbat faktore disruptiboak direnak: UNESCOren Euskal Kostako Geoparkeak eragindakoak eta “Ocho apellidos vascos” edo “Game of Thrones” bezalako mugarri zinematografikoek sortutakoak (lehenak estatu mailako eragina du, bigarrenak nazioartekoa). Noski, horien guztien eragina nabaria da herrian eta garrantzia du, tokiko ekonomiarengan bezala, herritarren bizimoduan ere. Turismoaren eragina aberasgarria izan dadin, **tokiko ekintzailetasun turistikoaren oinarrian garatu beharko da, beti ere ingurumenaren zaintza eta babesa bermatuko duen kudeaketa-eredu jasangarri bat bada, gure nortasunari eta kulturari balioa erantsiko badio eta herritarren ongizatea bermatuko badu, bisitariekin elkarbizitza orekatua lortuz.**

**Zumaia,**  
Euskal Autonomia Erikidegoa

Biztanleria  
**9746**

Biztanle-  
dentsitatea  
**905,76**  
bizt/km2

Azalera  
**1.076**  
Ha



Aurrekariak. A  
Azterketa/Ikerketa. B  
1. Laborategia. C  
Hurrengo pausua. D



## A. AURREKARIAK

**Ikerketa-ekimena** deritzon metodologia erabili da Zumaiarako turismo plana idazten hasi aurreko azterketan. Metodoaren oinarrian lanerako eredu zehatz bat dago, honela definitzen dena: ezagutza sortzen du, aldaketak eragiten ditu eta, azken finean, bateragarria da bestelako proiektuekin ere; hala nola, ekimen zehatz bat, ebaluazio bat edo ikerketa bat.

Metodologia horren ezaugarri ohikoenetako bat da bere **izaera parte-hartzailea**: eragileak dira, aldi berean, aztertzaileak eta aztergaiak. Badira, salbuespen gisa, aurretiaz ezarritako helburuak eta mugarriak. Baina ikerketa-ekimena metodoaren ezaugarria da helmuga eta mugarrien zatirik handiena prozesuaren beraren baitan sortzen dela.

Aurretiazko fasean, Igor Calzada Doktoreak eta Ana Arranzek artikulua zientifiko bat prestatu zuten: *“Translocal Strategies for Experimenting with Smart Tourism Labs in Zumaia: The case of the Basque Coast Geopark, Basque Country (Spain)”*. Artikulua hori Murtzian aurkeztu zen, Helmuga Turistiko Adimentsuen Nazioarteko 1. Kongresuan. Kongresu hori Nazio Batuen baitako Munduko Turismo Erakundeak antolatu zuen, 2017ko Otsailaren 15etik 17ra bitartean.



Artikulua irakurgai dago hemen, ingelesez:

[https://www.researchgate.net/publication/312190814\\_Translocal\\_Strategies\\_for\\_Experimenting\\_with\\_Smart\\_Tourism\\_Labs\\_in\\_Zumaia\\_The\\_Case\\_of\\_the\\_Basque\\_Coast\\_Geopark\\_Basque\\_Country\\_Spain](https://www.researchgate.net/publication/312190814_Translocal_Strategies_for_Experimenting_with_Smart_Tourism_Labs_in_Zumaia_The_Case_of_the_Basque_Coast_Geopark_Basque_Country_Spain)



## B. AZTERKETA/IKERKETA

Lehen fasean, **diagnostikoari** ekin zaio. Bertan, turismoaren inguruko azterketa bibliografikoa burutu da, Zumaiari eta Euskal Kostako Geoparkeari buruz azkenaldian argitaratu diren artikuluko zientifikoak, erakundeen politikak, datu estatistikoak, saiakerak eta komunikabideetako aipuak jasoz. Fase hau zabalduz doa gaiaren inguruko politika zein txosten berriak argitaratzen diren heinean.

Parte-hartze zuzeneko fasearen aurretik, analisi kuantitatibo eta kualitatiboak burutu dira, galdetegi baten eta 2017ko ekainetik abuztura bitartean egindako elkarrizketa hainbaten oinarrian.

**Galdetegia** erantzun-gai egon zen, 6 aste eta erdiz, Zumaiako biztanleria osoarentzat (9.746 biztanle). Baita herrian lan egin zein herriarekin lotura estua duten pertsona ororentzat ere. 59 galderen bitartez, honakoei buruzko informazioa jaso nahi izan zen: erantzuten zuenaren profila, turismoari buruz zuen pertzepzioa (dituen eragin positibo zein negatiboak ezagutzeko), zumaiarren bidaiatzeko ohiturak, bertakoek turismoaz eta bisitariez egiten duten balorazioa, turismo-sektoreari buruzko iritzia, erantzuten zuenaren ahalduntze psikologiko, sozial eta politikoa eta, azkenik, turismoaren gaian, parte-hartzea estrategia gisa erabiltzeari buruzko iritzia.

**Galdetegiaren emaitzen laburpena**, atalez atal:

### 1. Erantzun dutenen profila

Turismo-sektoreko kideen parte-hartze baxua nabari da. Aldiz, herritarren parte-hartze orokorra nabarmena izan da. Genero-berdintasunari dagokionez, banaketa egokia ageri da eta euskararen erabileraren datuak bat datoz errealitatean ematen denarekin. Orokorrean, unibertsitate mailako ikasketak dituen 35-54 urte arteko pertsonak osatzen dute parte hartu dutenen profila.

### 2. Turismoa ulertzeko modua Zumaian

Zumaiarrak arduratuta ageri dira turismoak plangintza fisikoan, tokiko ekonomian eta bizi-kalitatean dituen eraginekin. Kopuru txiki batek uste du turismoak kaltea eragiten diola euskararen erabilerari eta identitatea galarazten duela. Turismoak espazio publikoaren saturazioa ote dakarren eta ingurumena hondatzen ote duen galdetuta, erantzun orekatuak lortu dira.

### 3. Erantzun dutenen bidaiatzeko ohiturak

Zumaiarrek, bidaiatzen dutenean, autoa erabiltzen dute garraiobide nagusi bezala. Atzetik datoz autobusa eta hegaldi merkeak. Ez dute autoa partekatze ohiturarik eta bizikletaren erabilera baxua da.

Helmuga turistikoa aukeratzerako orduan, internet erabiltzen dute, aurrez ezagutzen dute lekua edo lagunek/familiakideek gomendatu diete helmuga hori. Bidaiatzeko arrazoien artean, aisia eta atsedena dira nagusi. Turismo jasagarritzat ulertzen dute modu arduratsuan egiten dena.



#### 4. Egoiliarrek/bertakoek nola baloratzen duten turismoa Zumaian

Balio naturalei buruzko kezka islatzen da. Gehien baloratzen direnak: UNESCOren nazioarteko sareko kide izatea, biotopoa babeserako tresna gisa eta Euskal Kostako Geoparkearen kudeaketarekin elkarlana. Kalitatezko turismo baten aldekoak dira eta ez diote garrantzirik ematen autoak zein logelak edo etxeak alokatzeko dauden plataforma digitalei.

#### 5. Zumaia iristen diren bisitari/turisten balorazioa bertakoek aldetik

Bisitariak onura gisa hartzen dira Zumaian (% 61) eta, etorkizunera begira, bisitari gehiago hartzearen aldekoa da (% 50). Bisitariak eragiten dituzten eragozpenen artean honakoak aipatzen dira: saturazioa, aparkalekuen gabezia eta ingurumenarekiko errespetu-falta.

Zumaia bisitatzen dutenek interesa dute natura eta gastronomiarekiko. Horien atzetik datoz ostatua eta alokairuak. Zumaiarrek nahiago dituzte gaua bertan pasako duten turistak, ongi informaturik daudenak eta natura zein nekazaritzarekiko interesa dutenak. Balorazio eskasak dituzte adinekoen turismoak eta talde handitakoak.

#### 6. Turismo-sektorearen balorazioa zumaiarren aldetik

Eskaintza gastronomikoaren hobekuntza eta formazioaren beharra dira aipatutako gai nagusiak. Balorazioak positiboak dira sektorean genero-berdintasuna bermatzen inguruan eta euskara ondare gisa erakustearren aldekoak dira.

#### 7. Ahalduntze psikologikoa, soziala eta politikoa.

Ahalduntze psikologikoa positiboki baloratzen da. Zumaiarra harro sentitzen da bere herriaz. Hala ere, gabeziak nabari dira ahalduntze sozial eta politikoari dagokionean.

#### 8. Zumaiaiko turismo-politika eta plangintzan parte-hartzea baliatzeko estrategia

Plangintza eta politika turistikoetan parte hartzeko interesa adierazi du % 58k, baina ez daki nola parte har dezakeen beraietan.

Galdetegiaren erantzunak hemen ikus daitezke:

[http://zumaia.eus/files/copy\\_of\\_Lab1Galdetegia201720170912Euskara.pdf](http://zumaia.eus/files/copy_of_Lab1Galdetegia201720170912Euskara.pdf)

108 **elkarrizketetan** oinarritu da analisi kualitatiboa. Elkarrizketak egiteko, herriko zein kanpoko hainbat agente aukeratu dira: sektore publikotik (30), sektore pribatutik (30), antolaturiko gizarte zibiletik (28), akademiatik (7) eta ekintzaitzatik (13).







Bost sektore horietako kolektibo ezberdinen iritzia modu zuzenean lortzera begira diseinatu zen elkarrizketen edukia. Zehazki, gai hauen inguruko iritzia ezagutu nahi ziren: Zumaia jasandako turismoaren garapen eta hazkundeari buruzkoa, barne zein kanporako posizionamenduaren ingurukoa, turismo gaitan erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioari buruzkoa, Euskal Kostako Geoparkearen kudeaketari buruzkoa, turismoaren bitartez kulturari zein euskarari balioa emateari buruzkoa, espazio natural eta hiritarren erabilerari gizarteak nola begiratzen dionari buruzkoa, masifikazio turistikoaren eta haren eraginei buruzkoa, etxebizitza turistikoaren eta alokairuaren ingurukoa, ekintzailatza turistikoari buruzkoa, tokiko ekonomian turismoak duen garrantziari buruzkoa, tokiko turismo-sektorearen lehiakortasunaren ingurukoa, erabakiak hartzerako garaian parte-hartzearen garrantziari buruzkoa, teknologia berrien aplikazioaren garrantziaren ingurukoa, datu-bilketa eta trataerari buruzkoa eta Zumaia epe ertaineko ikuspegiari buruzkoa, turismoari dagokionean.

Galdetegiko erantzunetatik eta elkarrizketetatik lortutako emaitzak aztertu ondoren, azalduko kontzeptu eta gaiak 10 sektore estrategiko edo ardatz nagusitan laburbildu ziren. Horiek izan ziren Irailean burututako lehenengo laborategian aztertu eta garatzeko gaien oinarrian egon zirenak. Guztiak izan ziren baliagarri Zumaian aplikatu beharreko eredu turistiko definitzen eta estrategiak erabakitzen hasteko.



## 10 sektoreen edo ardatz estrategikoen deskribapena:

### 1. Tokiko sentimendua: Nortasuna eta euskara

Kontzeptu honek hiri-diseinuan eta ingurune naturalean oinarritutako elementu ukigarriari egiten die erreferentzia. Baina baita bestelako elementu ukiezinei ere, tartean nortasunaren paisaiari edo paisaia irudikatuei. Horiek guztiek definitzen dute leku bat.

Bertako elkarrizketatuen artean sendoa da lekuarekiko atxikimendua, bertako izatearen sentimendua, nortasuna. Ingurune naturalaren balio altua onartu eta bere egiten dute, alde batetik. Bestetik, ordea, arduratuta ageri dira haren kontserbazioarekin, mantenuarekin, irisgarritasunarekin eta segurtasunarekin. Zumaia irudi, Itzurun-Algorri inguruaren araudia gabeziak kezkatuta dauzka Halaber, honako hauek ere aipatzen dira: alde zaharraren biziberritzea, hori apainago jartzeko interesaren beharra, mugikortasuna hobetzea, auzoak herri-gunera gerturatuko dituen azpiegituren beharra (ibai-bideak eta bidegorri/bideberdeak) eta turismo sailetik antolatutako jarduerak.

Garrantzitsutzat jotzen da, baita ere, euskara eta tokiko nortasunari balioa ematea turismoak zeharka lotuko dituen proiektuen bitartez: industria eta



itsas\_iragana, toponimia, gastronomia, memoria historikoa eta euskararen erabilera.

## 2. Kultura-ekosistema

Zumaiak landua du herriko kultura-mapa eta, modu natural eta jarraian, turismoarekin elkarlanean diharduten elkarteek garatutako kultura-jarduerak ere anitzak dira. Elkarriketetan aipatu da elkarteen arteko harremana ez dela modu errazean gertatzen eta komenigarria litzatekeela erakundeek koordinazio lana egitea, proiektuak elkarrekin burutu ahal izateko. Hainbat elkartetako ordezkariak zera diote: turismoari aplikatutako ezaugarri kulturalak gutxiesten saihestu behar dela eta bisitari/turistekin harremanak modu naturalean gertatu behar direla, haien parte-hartzea begirunez gerta dadin. Tradizioaren eta berrikuntzaren arteko oreka bilatzen duten elkarlanerako guneak aurreikusten dira.

Filmazioen ondorioz (Game of Thrones) aurreikusten den turisten gorakadaren aurrean, honakoak proposatzen zaizkie erakunde zein elkartei: jarria lurraldean zehar hedatzea, produktu edo harreman ezberdinen eskaintzaren bidez, antzeko gaien inguruan ibilbideak sortzea edo inguruko enpresa sortzaileekin sinergiak bilatzea.

## 3. Posizionamendu geografikoa

Zumaiak kokapen geografiko interesgarria du turismo gaietan lurralde-antolamenduak dituen mugarri-multzoan. Kostaldearen eta barnealdearen arteko giltzarri moduan jokatzen du. Hala, bere estrategiak lotzen ditu, eta turista-jarioak banatzen, honakoekin eta honakoen artean: Euskal Kostako Geoparkea (zeinaren motorra den), Uroka Kostako Udal Elkarte, Urola Erdia, Urola Garaia eta Explore San Sebastian Region. Azkenaldian horien guztien artean garatu den lankidetzaren positibotasunak jotzen da eta harremanak sendotzearen aldeko apustua egiten da. Non, denboran gertatuz datorren lankidetzaren positiboki balioesten den eta erlazioak indartzea pentsatzen diren. Bide berdeak bezalako proiektuek elkarlan hori areagotzen dutela diote.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Donostia eta Bilbo arteko kokapen egokian dago Zumaia. Donostiarekiko loturak, gainera, ongi baloratzen dira.

Euskal Kostako Geoparkearen bitartez UNESCOren nazioarteko sarean duen presentziak eta geologiaren alorrean nazioartean sortzen duen interes zientifikoak aukerak eskaintzen dizkio Zumaiari. Hala, turismo zientifikoaren garapena oso positiboki baloratu da, bai tokiko eragileen aldetik, baita eskualdekoen aldetik ere.

## 4. UNESCOren Euskal Kostako Geoparkea

Euskal Kostako Geoparkearen irudiak turismoa kudeatzeko modu berritzaile bat eskaintzen du. Herritarrengandik hasita, zientzia (geologia), hezkuntza, turismoa eta lurralde-garapenean oinarrituz bere estrategiak.

Oro har, zumaiarrek Euskal Kostako Geoparkea ikusten dute turismoa bultzatzeko marka nagusi gisa, onartzen duten arren eskaini ditzakeen aukerak ez dituztela ezagutzen. Bestalde, faltan botatzen dute Deba, Mutriku eta Zumaiaren arteko nortasun partekatuen sentimendua.



## 5. Tokiko ekonomia paisaiaren eta naturaren arautzaile gisa

Natura-turismoaren gehiegizko igoerak bioaniztasuna arriskuan jar dezake. Baina turismo mota hori baliabide garrantzitsua da landa-garapenerako, tokiko erakundeei dakartzkien etekinak kontuan izanda. Babesturiko espazioen (biotopoen) araudia ez aplikatzeak baliabide hauskor bihur dezake espazioa bera.

Lehen sektoreak bizi duen egoera kritikoari buruzko kezka azaldu dira. Horren ondorioz, ingurune naturalaren mantenu falta eta hondamendirako arriskua aipatzen dira, suteen arriskua barne. Lehen sektorearentzat, turismoaren inguruko ekimenak garatzeko, neurri lagungarrien beharra aipatu da (nekazal etxeen eta baserritarren aldetik, batik bat).

## 6. Helmuga turistiko adimentsua

Helmuga turistiko adimentsu bat helmuga turistiko berritzaile gisa ulertzen da: abangoardiako azpiegitura teknologikoaren oinarrian sendotutakoa da; lurralde turistikoaren garapen jasangarria eta iraunkorra bermatzen ditu; edonorentzat irisgarria da; bisitariaren eta ingurunearen arteko elkarrekintza eta integrazioa errazten ditu eta bertako bizipenaren kalitatea areagotu egiten du helmugan. Horren guztiaren ondorioz, lehiakortasuna areagotzen du, berrikuntzarako gaitasunaren bidez, helmuga turistikoaren hautematea hobetuz eta enpresen gaitasun produktiboa handituz. Azken baten, bertakoen bizi-kalitate hobea lortzen du helmuga turistiko adimentsuak.

Elkarrizketetatik zera ondorioztatzen da: azpiegitura teknologikoen eta formakuntzaren gabezia nabari dela. Horiek erdietsita, errazago eta hobeto eskaini ahal izango liriteke bizipenen turismoa edo tokiko erreserben kudeaketa bezalako zerbitzuak.

## 7. Tokiko ekintzailetasun turistikoa

Elkarrizketatutako gehienek tokiko ekonomiaren laguntzaile gisa ikusten dute turismoa. Turismo-segmentu eta produktu turistiko desberdinak garatzeko baldintzak ematen direla ikusten da. Elkarrizketatutakoen gehiengoak turismo mota honen aldekoa da: komunitatean oinarritutakoa, naturari lotutakoa, familiakoa, kanpin zalea, zientifikoa, negozioekin lotura duena (MICE), gastronomikoa, aktiboa, bizipenetan oinarritutakoa et kultura eta identitatea ardatz izango dituen. Aldiz, zinemagintzarekin harremana duen turismoa sustatzearen aurka agertu da gehiengoak.

Azken urteetan, surfaren inguruko jarduerak gorakada izan du Zumaian.

Oro har, ekintzailetasuna negozio bakoitzaren barnean gertatzen dela aipatu da. Turismoaren gaian ekiteko laguntzen gabezia ere plazaratu da. Batek baino gehiagok egin dio aipamena erosketa-ahalmen urriko jendearentzat dagoen ostatu faltari (aterpetxea edo tankerakoren bat). Alde zaharreko komentuaren erabilerari buruz galdetuta, eztabaida sortu da horren kudeaketa-ereduaren inguruan. Eraikin-multzoari erabilera emateaz gain, alde zaharra bera biziberritzeko balio beharko luke han kokatuko litzatekeen jarduerak.

Azpinarra egin zaien beste gai batzuk honakoak dira: ostalaritza zerbitzuen hobekuntza, parrillen erabilera bultzatzea eta turismoaren urtarokotasuna



gainditzea, horrek sektore turistikoko lanpostuen ezegonkortasuna saihesten lagunduko lukeelako.

## 8. Elkarbizitza

Orokortutako kezka bat da herrian kontrolik gabeko turismoak ekar ditzakeen aldaketena. Hala, “letorkeenari aurre hartzearen” beharra aipatu da. Elkarriketatuen zati handi batek kezka adierazi du herrian ohiko etxebizitza gisa alokatzeko dauden zailtasunengatik eta prezioen garestiagatik..

Etxebizitza turistikoen gorakadak arautu beharra ekarriko du, epe ertainean.

Espazio publikoaren okupazioari (edo masifikazioari) dagokionean, aipatzen da Zumaia daukan turistak jasotzeko gaitasuna ezagutzearen beharra. Bereziki, gainera, Itzurun-Algorri inguruan. Behin hori ezagututa, natura-gunearen erabilerari nolako mugak jarri beharko litzaizkiokeen erabaki daiteke.

Hainbatek aipatu ditu turismoa demokratizatzearen eta turismo arduratsu baterako eskubidearen ideiak.

## 9. Teknologia berriak

Teknologia berriak ezinbesteko osagaia dira turismoarentzat. Ez soilik informazioa eta ezagutza trukatzeko, baizik eta aplikazioen eta egintza jasangarriagoak bermatuko dituzten metodologiaren garapenerako ere bai. Hala, sektorearen beste hainbat ardatzen gain eragingo litzateke. Besteak beste, hauengan: klima-aldaketa, ondare ukigarri zein ukiezinen babesa edo erabiltzailearen (turistaren) kudeaketa digital integrala.

Alor honek turismoari eskaini diezazkiokeen aukeren gaineko ezagutzarik eza aitortu dute elkarriketatutako gizarte zibileko eragileek. Aldiz, positiboki baloratzen dute Zumaia presentzia sare sozialetan. Sektoreko profesionalek ere positiboki baloratzen dute, baina hauek badakite zein den horren helburua.

## 10. Gobernantza turistikoa

Turismoak, halaber, interes ezberdinen arteko talka sortzen du. Gobernantza turistikoaren kontzeptuak erreferentzia egiten die arazo horien guztien kudeaketan hartzen diren erabakien prozesuei. Ezinbestekoa da, beraz, aktore ezberdinen harremana bermatuko duten espazioen sorrera. Hala, hartuko diren erabaki kolektiboak hobetuko dira, aktore guztien artean ezarritako lanerako sistemen bitartez eta kudeaketa eta garapenerako prozesu berriak diseinatuz.

Tokiko sektore publikoak nabarmendu du baliabideak handitu behar direla, jarduera turistikoaren kudeaketa bere alde guztietan garatzeko. Administrazio ezberdinen arteko harremana modu positiboan baloratu da, nahiz eta, lehiakorrek izateko, koordinazioa falta dela onartzen den. Turismo-bulegoa eta Algorri interpretazio-zentroa eraikin berean baleude, Zumaia irudia hobetuko litzatekeela uste da.

Herritarren aldetik, ordea, gabezia bat nabari da. Eta da, ez dagoela tresna edo espaziorik, parte-hartzearen bidez, turismoaren gaiari jarraipena egin eta haren inguruko erabakirik hartzeko. Tokiko turismoaren behatoki bat edo turismo-mahaiak sortzearen inguruko proposamenak jaso dira.



**Prozesuaren baitako zuzeneko parte-hartzea** hiri-laborategi gisa izendatu den tresnaren bidez burutu da. Zumaia herritarrek turismoaren inguruan esperimentatu dezaten sortutako tresna da hiri-laborategia.

## C. 1. LABORATEGIA > ZumaiaLab Turismoa

### Zer da laborategi bat?

Laborategia (#lab) arazoak ebazteko ingurune bizi bat da. Lanerako espazio fisiko egokia eskaintzeaz gain, gai zehatz baten inguruan engaiaturiko lantaldeek modu interaktiboan sortzen dituzten emaitzak jasotzen dira bertan. Aholkulariak bailiran, parte-hartzaile ezberdinek (eragileek) sakonean jorratzen dute gaia, horrengan eragiten duten arazoak identifikatzeko, konponbideak proposatzeko, lehentasunak ezartzeko eta sektore ezberdinen artean sinergiak sortzeko.





## #ZumaiaLab laborategian erabilitako metodologia

### 1. Turismo-politikak eta praktikak, esperimentazioaren oinarrian definituak

- Lurralde-garapena helburu.
- Gizarte kohesioa/eraldaketa eta jasangarritasuna abiapuntu.
- Estrategia eragileekin eraiki eta formulatuz, parte-hartzea bermatuz.
- Gai konplexu eta kateatuak direnean, adimen kolektiboa behar dugulako, eragileen ezagutza.
- Beraz, estrategia (formulazioa) parte-hartzearekin (deliberazioa) uztartuz, eta alderantziz.

### 2. Zubigintza: eragileen ezagutza/esperientzia anitzetan oinarritutako politikak eta praktikak formulatuz

- Iritzien eta polarizazioen esparrutik datuetarako jautzia.
- Kritikak onartuz, berauek balizko (er)alda(keta)gai gisa proposatu eta beste eragileekin landuz.
- Eskuartean ditugun baliabideak eskainiz (ekonomikoak, sozialak, erakundeetakoak eta teknologikoak).
- Turismofobia edo/eta turismoaren alboko kalteen kontrako txertoa bilatuz > Hipotesi bat. Tokiko ekintzailetasunarekin gainditzeko delako ikusten ari gara.

## 1. LABORATEGIA >

Asteartea, 2017ko Irailak 12

Lehen Saioa. Maria eta Jose Ikastetxea, 10:00h – 11:00h

Bigarren Saioa. Oxford Aretoa, Alondiga Zumaia, 17:30h – 20:00h

### Lehen saioa:

#### Zumaia haurrek turismoari buruz duten bat-bateko ikuspegia

Bost talde osatu dira, bakoitza bost parte-hartzailerekin (lau haur 5-6 urtekoak eta 9-10 urteko haur bat, talde bakoitzean). Eskaintako orrian, hiru galdera hauei marrazki bidez erantzuteko eskatzen zaio talde bakoitzari:

1. Nola marraztuko zenuke turista bat?
2. Zer egiten du turista batek?
3. Nola irudikatzen duzu Zumaia 1-2 urte barru?

Jarraian adierazten dira lorturiko emaitzak, baita marrazkien irudiak ere:

*Urtxintxa* taldeak, surf-zalea den turista eta turistek erabiltzen dituzten garraiobideak marraztu ditu. Flysch-a, bihotzak eta argazkiak ateratzen dituzten pertsonak marraztuz irudikatzen dute bi urte barruko Zumaia.

*Itsasoa* taldeak, ingelesa hitz egiten duten jatorri desberdineko turistak marraztu ditu. Etorkizuneko Zumaia "Zumaialandia" bihurtuta irudikatu dute.



*Kolore* taldeak, turista bat definitzerakoan, naturari eta paisaiari begiratu dio. Turistak flyscha itsasontzitik ikusteko hurbiltzen dira Zumaia, dirua uzten dute eta bi urte barru errepide eta hotelez jositako Zumaia irudikatu dute.

*Onenak (1)* taldeak, bizkar-zorroa soinean eta natura maite duen turista marraztu du. Zumaia, bi urtetan, turistaz beteta irudikatu dute.

*Onenak (2)* taldeak, adiskidetasuna aipatzen du, markako janzkiak dituen turista, itsasoaren arriskuak eta flyscha marraztu ditu. Etxe orratzak eta ur gaineko etxeak irudikatu dituzte etorkizuneko Zumaian.





## Bigarren saioa:

### Laborategia helduekin

Elkarrizketatutako 108 eragileak gonbidatu dira laborategian parte-hartzera. Azkenean, 71 izan dira hurbildu direnak. Zazpi lantalde osatu dira, goian aipatutako bost sektoreak ordezkatuz lantalde bakoitzean (sektore publikoa, sektore pribatua, antolaturiko gizarte zibila, akademia eta ekintzaileak).

Ongietorriaren eta galdeketa-aren emaitzen aurkezpenaren ondoren, laborategiaren metodologia aurkeztu da. Parte-hartze zabala eskertu ondoren, hasiera eman zaio saioari.

Lehen laborategi hau bi fasetan banatu da: A eta B faseak.

### A fasea. **Erronka**

Galdera hau plazaratu da:

#### **“Zein da Zumaia herritarrok**

#### **Turismoaren inguruan dugun erronkarik garrantzitsuenak?”**

Galderaren erantzunak lantaldeetan eztabaidatu ondoren, lortutako ondorioak aurkeztu dituzte bozeramaileek. Hona horien laburpena:

- ❖ Talde gehienetan haxe izan da aipaturiko erronka nagusia: bertakoen ongizatea eta turistekiko elkarbizitza bermatzea, herritarrei zuzenduriko plan bat garatuz.
- ❖ Turismoa erabiltzea bertakoen nortasuna eta kultura-ezaugarriari balioa emateko. Horretarako, industria eta itsas ondarearekin, gastronomiarekin, geologiarekin eta memoria historikoarekin lan eginez.
- ❖ Turismoak eskaintzen duen zeharkakotasuna erabiltzea beste sektore batzuekin harremanetan dauden proiektuak garatzeko.
- ❖ Turismoaren kudeaketarik egokiena lortzeko, “saldu baino lehen, zaindu” da egin daitekeen ekarpenik onena, modu jarrai eta jasangarrian egin ere.
- ❖ Turismoaren egungo arrakasta planifikatutako estrategia baten ondorioztat hartzen da.
- ❖ Turismoaren gain ardura duten erakunde desberdinen arteko koordinazioa hobetzea. Adibide gisa aipatu da ingurune naturalaren babesera zuzendutako politiken eta turistek saturazioa bultzatzen duten jardueren arteko ezegonkortasuna.
- ❖ Flyscharen sustapen hutsean oinarrituta ez dagoen beste turismo mota bat garatzea.
- ❖ UNESCOren nazioarteko sarean dugun presentzia aprobetxatzea kalitatezko turismoa garatzeko.

Talde bakoitzak egin dituen aurkezpenak alderatuta, aurretiaz egindako elkarrizketetan aipatu diren hainbat gai/erronka agertu ez izana nabarmendu da:

- ❖ Euskararen erabilerari balioa ematea.
- ❖ Natura-guneen zaintza eta haien saturazioa.



- ❖ Ostatu-eredu berriak, aterpetxea.
- ❖ Komentu zaharrari erabilera berria ematea, herritarren kudeaketa-ereduan oinarritutakoa.
- ❖ Ohiko erabilerarako etxebizitzan alokairua bermatzea, etxebizitza turistikoaren ugaritzearen aurrean.
- ❖ Gobernantza turistikoan herritarren parte-hartzea bermatzea.

### B Fasea: 10 sektoreen lehentasuna

Fase honetan, goian deskribatu diren 10 sektore edo ardatz estrategikoak aurkeztu dira. Taldeetan eztabaidatu ondoren, garrantziaren arabera sailkatu dira sektoreak (1 garrantzitsuenarentzat, 10 garrantzia gutxienekoarentzat).

Hauek dira proposatzen diren 10 sektore estrategikoak:

1. Tokiko sentimendua
2. Kultura-ekosistema
3. Posizionamendu geografikoa
4. UNESCOren Euskal Kostako Geoparkea
5. Tokiko ekonomia, paisaiaren eta naturaren arautzaile gisa
6. Helmuga turistikoa adimentsua
7. Tokiko ekintzailetasun turistikoa
8. Elkarbizitza
9. Teknologia berriak
10. Gobernantza turistikoa

Hurrengo taulak jasotzen ditu lantaldeetako bakoitzean sortu diren emaitzak:

TALDEA>	BAT	BI	HIRU	LAU	BOST	SEI	ZAZPI
1 sektorea	1	4	2	3	7	2	-
2 sektorea	2	5	5	4	5	4	-
3 sektorea	8	10	8	7	8	10	5
4 sektorea	5	7	7	8	6	7	3
5 sektorea	4	6	3	5	3	5	2
6 sektorea	7	8	9	6	9	9	-
7 sektorea	3	1	4	2	1	3	4
8 sektorea	3	2	1	1	2	1	1
9 sektorea	9	9	10	10	10	8	-
10 sektorea	6	3	6	9	4	6	10





Taldeek sektoreei eman dien lehentasun mailaren arabera, horrela geratu dira ordenatuta:

1. Elkarbizitza
2. Tokiko ekintzailetasun turistikoa
3. Tokiko sentimendua
4. Kultura-ekosistema
5. Tokiko ekonomia, paisaiaren eta naturaren arautzaile gisa
6. UNESCOren Euskal Kostako Geoparkea
7. Gobernantza turistikoa
8. Helmuga turistiko adimentsua
9. Posizionamendu geografikoa
10. Teknologia berriak

#### D. HURRENGO PAUSUA

Turismo Planaren idazketarako prozesuaren baitan izan den parte-hartze zabalak ekosistema egokia sortu du **estrategia bideragarritasunarekin lotzeko**.

